



LABORAL KUTXA TALDEAREN JASANGARRITASUN-ARRISKUAK TXERTATZEKO POLITIKA

1 | Sarrera

Jasangarritasuna funtsezko oinarria da Laboral Kutxa Taldearen estrategian, bai gizartearen garapenean laguntzeko, bai klima-aldaketak, ingurumenaren narriadurak eta baliabideen agortzeak eragindako erronkei erantzuteko helburu orokorra betetzen laguntzeko.

Hasiera-hasieratik, eta Kreditu Kooperatiba den aldetik, Laboral Kutxa Taldearentzat lehentasun izan dira kudeaketa etikoa, banku-jarduerak gizartearen duen eraginagatiko kezka, gobernu korporatibo ona eta ingurumena zaintzea.

2019. urtearen amaieran, Europako legegileek Dibulgazio Erregelamendua argitaratu zuten;¹ agiri horren helburua gardentasuna areagotzea da, eta entitateen artean konparazioak egiteko moduko informazioa argitara dadin sustatzea, jasangarritasun-arriskuak txertzeari, jasangarritasunaren alorreko intzidentzia kaltegarrien analisiari eta finantza-produktuen jasangarritasunari buruzko informazio jakin bati dagokienez nola jokatzeko duten jakitearren.

Erregelamendu horren arabera, web-orrian nahitaez argitaratu behar dute jasangarritasun-arriskuak inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan edo inbertsio nahiz aseguruiei buruzko aholkuetan txertatzeko politikarekin lotutako informazioa.

Horren ondorioz, Laboral Kutxa Taldeak “Jasangarritasun-arriskuak txertatzeko politika” edo “ESG txertatzeko politika” (aurrerantzean, “Politika”) hau onartu du.

Politika honetan erabakitakoaz gain, Laboral Kutxa Taldeak baditu ESGak txertatzeko barne-prozedura bereziak ere, eta horietan zehaztasun handiagoz arautzen dira Politikan jasotako printzipioak.

2 | Politikaren aplikazio-eremua

Politika hau Laboral Kutxa Taldeko entitateei aplikatuko zaie une oro, betiere “finantza-merkatuetako parte-hartzailatzat” edo “finantza-aholkularitzat” jotzen badira Dibulgazio Erregelamenduan zehaztutako definizioaren arabera; hona hemen entitate horiek:

- **Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean, LK):** “finantza-aholkularitzat” hartzen da, “inbertsioen arloko aholkularitza-zerbitzua” ematen duelako eta “finantza-merkatuetako parte-hartzailatzat” hartzen da, “zorroen kudeaketa diskrezionala” zerbitzua ematen duelako.
- **Caja Laboral Gestión, S.G.I.I.C., S.A. (aurrerantzean, CLGestión):** “Finantza-merkatuetako parte-hartzailatzat” hartzen da, inbertsio kolektiboko erakundearen gestorea delako.
- **Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P. (aurrerantzean, CL Pensiones):** “Finantza-merkatuetako parte-hartzailatzat” hartzen da, pentsio-funtsen gestorea delako.

¹ 2019/2088 (EB) Erregelamendua, 2019ko azaroaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa

3 | Politika onestea eta berrikustea

Politika bera eta Politikaren aldaketa oro Caja Laboral Popular Coop. de Crédito entitatearen Kontseilu Errektoreak onetsi behar ditu, baita Caja Laboral Gestión, S.G.I.I.C., S.A. eta Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P. entitateen Administrazio Kontseiluek ere.

Politika **aldizka** berrikusiko da, eta politikaren izaeran edo egituran eragin nabarmena duten inguruabarrak gertatzen diren bakoitzean. Aldizka edo une jakin batean egindako berrikuspenen ondorioz Politikan aldaketak egiten badira, kasu horretan ere, goian aipatutako administrazioiko eta zuzendaritzako organoek berretsi beharko dituzte aldaketa horiek.

4 | ESG irizpideak eta jasangarritasun-arriskua txertatzea

Laboral Kutxa Taldeak ESG faktoreak eta jasangarritasun-arriskua txertatzen ditu

ESG irizpideei dagokienez, finantza-arlo hutseko analisitik kanpo geratu izan diren baina ikuspegi etikotik begiratuta kritikoak izan daitezkeen aldagaiak txertatzen dira, enpresa baten jardunean eta garapenean eragina izan dezaketelako eta, beraz, baita inbertsioaren balorazioan ere.

ESG irizpide horiek hiru multzo nagusitan sailkatzen dira:

- **Ingurumen-arloko irizpide edo faktoreak (I):** Enpresek ingurumenean duten eraginari dagozkio, baita konpainiek kutsadura-maila edo karbono-isuriak murrizteko egiten dituzten ahaleginei ere. Besteak beste, klima-aldaketa, berotegi-efektuko gasen isuriak, biodibertsitatearen galera, energia-efizientzia, ura eta baliabideak agortzea edo hondakinen kudeaketa sartzen dira multzo honetan.
- **Irizpide edo faktore sozialak (S):** Pertsonen eta komunitateen eskubideekin, ongizatearekin eta interesekin lotutako gaiei dagozkie. Besteak beste, giza eskubideen errespetua, lan-estandarrik, haurren esplotazioa, lan behartuak, laneko osasuna eta segurtasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, diskriminazio mota oro, giza kapitalaren kudeaketa, tokiko komunitateekiko harremanak, eremu gatazkatsuetako jarduerak edo arma eztabaidagarrien erabilera.
- **Gobernantza-irizpideak (G):** Konpainien egitura eta antolaketa, barne-kudeaketa eta lidergoa, ordainsari-politikak, akziodunen eskubideak, akziodunen eta administratzaileen arteko harremana, erabakiak hartzeko prozesua, emakumeek zuzendaritza-postuetan duten presentzia, etika profesionala, ustelkeria eta eroskeria edo gardentasuna informazioa zabaltzean.

ESG irizpideak txertatzeak esan nahi du inbertsioak aztertzen direnean kontuan izan behar direla inbertsio horiek gizartean eta ingurumenean sor ditzaketen ondorio eta eraginak. Aldi berean, **jasangarritasun-arriskua kontrolatzeko** tresna ere bada, hau da, gertatuz gero, inbertsioaren balioan ondorio negatibo materiala eragin dezakeen ingurumeneko, gizarteko edo gobernanzako edozein gertaera edo egoera.

5 | ESG arriskuak Laboral Kutxa Taldean

txertatzeko prozedura

Laboral Kutxa Taldearen erantzukizuna da ingurumen-arloko, gizarte-arloko eta gobernantzako faktoreen (ESG) ondoriozko arriskuak eta aukerak kudeatzea, bai CLGestión eta CLPensiones entitateetako inbertsioen kudeaketan, bai LK entitateak ematen duen inbertsioei eta zorroen kudeaketa diskrezionalari buruzko aholkularitza-zerbitzuan.

Soilik arriskuen ikuspegitik begiratuta, ESG arriskuak txertatzea finantza-analisi tradizionala osatzen duen neurria da, aktiboei buruzko informazio gehiago lortzeko eta, beraz, inbertsioekin lotutako arriskuak hobeto kudeatzeko aukera ematen duena.

Helburua, beraz, ESG arriskuak kontrolatzea eta inbertsio-aukera berriak identifikatzea da, gure bezeroei epe luzera balio handiagoa eskaini ahal izateko.

ESGak txertatzeko prozesuaren bitartez:

- i. Finantzen ikuspegitik begiratuta faktore materialak izanik, inbertsioen errentagarritasunean arrisku potentziala sor dezaketen eta, beraz, eragina izan dezaketen ESG faktoreak identifikatzen dira;
- ii. Finantza kanpoko informazio hori LKren aholkularitzako eta zorroen kudeaketa diskrezionalako zerbitzuaren esparruan aztertzen da, baita CLGestiónen Inbertsio Kolektiboko Erakundearen eta CLPensionesen pentsio-funtzen inbertsioen esparruan ere;
- iii. LKren inbertsio-gomendioak egokitu egiten dira, eta IKEetan eta pentsio-funtsetan inbertitzeko erabakiak hartzen dira aurreko informazioan oinarrituta, eta finantza-arloko irizpide eta arrisku tradizionalak oinarrituta.

5.1. ESGak txertatzeko ereduak

Laboral Kutxa Taldeak ezarri duen ereduak aukera ematen du ESG arrisku eta faktoreak CLGestión eta CLPensiones entitateen inbertsioen kudeaketan eta LKren inbertsioei eta zorroen kudeaketa diskrezionalari buruzko aholkularitza-zerbitzuan sistematikoki txertatzeko, baita trazabilitate osoa bermatzeko ere, ereduak ezarri izana egiaztatuta ahal izateko bezeroen eta arautzailearen aurrean.

Txertatzeko ereduaren oinarriak honako hauek dira:

1. **ESG informazioa:** Laboral Kutxa Taldeak ESG arrisku eta faktoreei buruzko informazio espezifikoak jasotzen du datu-hornitzaile espezializatuen bitartez.

Datu horiek kuantitatiboak izaki, informazio kualitatiboarekin osatzen dira (beharrezkotzat joz gero).

Erabilitako informazioa aldatu egin daiteke aztertu beharreko aktibo motaren arabera (akzioak, errenta finko korporatiboa, zor publikoa, IKEak eta abar).

2. **Txertatzeko irizpideak:** Laboral Kutxa Taldeak ezarri duen metodologia espezifikoki esker, finantza-analisi tradizionalarekin batera eta kudeatutako ibilgailuetarako inbertsio-erabakiak hartu aurretik edo bezeroei inbertsio-gomendioak eman aurretik, ESG faktoreei eta arriskuei buruzko informazio-iturri guztiak kontuan hartzen eta baloratzen direla bermatu daiteke.

Analisi horren helburua da aktibo guztien arrisku-kudeaketa indartzea eta hobetzea eta, batez ere, errentagarritasuna-arriskua binomioa optimizatzeke arrisku material handia dutenena.

Erabilitako metodologiak bermatzen du ESG faktoreei eta arriskuei buruzko informazioa dagoela inbertitzen den aktibo ia guztiei buruz, eta, beraz, deskribatutako analisi- eta hautaketa-prozesua aplikatu daitekeela.

3. Jarraipen- eta kontrol-sistema:

Aktibo jakin bat gomendatzeko edo inbertitzeko erabakia hartu ondoren, jarraipena egin behar da ESG faktore eta arriskuek denboran zer nolako bilakaera izaten duten kontrolatzeko.

Jarraipen hori egiteko, zeregin jakin batzuk eta horiek egiteko arduraren duten areak identifikatzen dira; hartara, inbertsioak hautatzeko ezarritako irizpideekiko sor daitezkeen desbideratzeak aldi-aldi identifikatu, jakinarazi eta kudeatu ahal izango dira.

6 | ESG gobernu korporatiboa

Laboral Kutxa Taldeak jasangarritasunarekiko konpromiso irmoari eusten dio eta, horretarako, funtsezkoa da goi-zuzendaritzako kideak ESG gobernantzan inplikatzea Taldeko entitateetan.

Gobernu-eredu bat diseinatu da entitate bakoitzean, goi-zuzendaritzako kideen inplikazioa eta eraginpeko langile guztien ezagutza bermatuta.

6.1. ESG gobernu-eredua

Politika hau betetzearekin lotutako gobernu-ereduan honako lan-maila hauek sartzen dira: goi-zuzendaritza, kontrol-unitateak eta lantalde edo negozio-areak.

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektorea izango da politika hau Talde mailan betetzen dela bermatzearen azken arduraduna. Zentzu horretan, taldeko entitateak kontrolatzeko eginkizunei esker, araudiaren betetzeari buruz egindako analisiaren berri izango du aldizka eta, hala badagokio, baita Administrazio Kontseiluak berak ere.

- ESG gobernantza Caja Laboral Popular Coop. de Crédito entitatean

Kontseilu Errektoreak jasangarritasunari buruzko hausnarketa estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudian ezarritako betebeharrak betetzearen azken arduraduna izateaz gain, zehazki, jasangarritasun-arriskuak aholkularitzako eta zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzuan behar bezala txertatzearen azken arduraduna ere bada. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasunaren arloko betebeharrak betetzeko behar adina baliabide eman beharko dizkio entitateari. Kontseilu Errektoreak betetze-mailan eragina duen edozein inguruabarren berri jaso behar du, une oro, entitateko gainerako areen aldetik.

Araudia Beteazteko Departamentuak Politika honetan jasotako betebeharrak behar bezala betetzen diren berrikusiko du aldizka, eta bere kontroletan kontuan hartu beharreko arrisku gehigarri gisa txertatuko du jasangarritasun-arriskua. Betetzeari buruzko analisiaren ondorioak Kontseilu Errektoreari bidaltzen dizkion aldizkako txostenetan sartuko ditu.

- **ESG gobernantza Caja Laboral Gestión, S.G.I.I.C., S.A. entitatean.**

Administrazio Kontseiluak jasangarritasunari buruzko hausnarketa estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudian ezarritako betebeharrak betetzearen azken arduraduna izateaz gain, zehazki, kudeatzen dituen IKEen inbertsio-erabakietan jasangarritasun-arriskuak behar bezala txertatzearen azken arduraduna ere bada. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasunaren arloko betebeharrak betetzeko behar adina baliabide eman beharko dizkio entitateari. Administrazio Kontseiluak betetze-mailan eragina duen edozein inguruabarren berri jaso behar du, une oro, entitateko gainerako areen aldetik.

Arriskuak Kudeatzeko eta Araudia Beteazteko Areak Politika honetan jasotako betebeharrak behar bezala betetzen diren berrikusiko du aldizka, eta jasangarritasun-arriskua bere kontroletan txertatuko du. Gainera, ESG informazioaren gobernantzaren arduraduna da. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da, eta Araudia Beteazteko Areak Administrazio Kontseiluari helarazi beharko dio eguneratze hori.

- **ESG gobernantza Caja Laboral Pensiones S.A, G.F.P entitatean**

Administrazio Kontseiluak jasangarritasunari buruzko hausnarketa estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudian ezarritako betebeharrak betetzearen azken arduraduna izateaz gain, zehazki, kudeatzen dituen pentsio-funtsen inbertsio-erabakietan jasangarritasun-arriskuak behar bezala txertatzearen azken arduraduna ere bada. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasunaren arloko betebeharrak betetzeko behar adina baliabide eman beharko dizkio entitateari. Administrazio Kontseiluak betetze-mailan eragina duen edozein inguruabarren berri jaso behar du, une oro, entitateko gainerako areen aldetik.

Arriskuak Kudeatzeko eta Araudia Beteazteko Areak Politika honetan jasotako betebeharrak behar bezala betetzen diren berrikusiko du aldizka, eta jasangarritasun-arriskua bere kontroletan txertatuko du. Gainera, ESG informazioaren gobernantzaren arduraduna da. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da, eta Araudia Beteazteko Areak Administrazio Kontseiluari helarazi beharko dio eguneratze hori.

6.2. Jasangarritasunari buruzko informazioa eta txostena

Laboral Kutxa Taldeak gardentasun osoa lortu nahi du jasangarritasunaren arloan, bezeroek Taldearen konpromisoa zenbaterainokoa den jakiteko aukera izan dezaten eta beren ESG itxaropenekin nahiz arlo horretako lehentasunekin bat ote datorren egiaztatu dezaten. Horretarako, jasangarritasunari buruzko atal berezi bat dugu web-orri korporatiboan, eta bertan argitaratuko dugu Politika hau.

7 | Politikaren ezaugarriak

| Bertsioa | Data | Organoa | Arrazoiak | Aldatu diren artikulak |
|----------|------------|------------------|--------------------|------------------------|
| 1 | 2021/02/28 | K. Errektorea | Hasierako onespena | |

| | | | | |
|---|------------|------------------|---------------|--|
| 2 | 2023/09/29 | K. Errektorea | ZKD zerbitzua | |
| | | | | |
